

KOLORETAKO MONSTRUAREN JOLASA

Koloretako monstuaren jolas honekin familiako kide guztien artean emozioak landu ditzazkegu. Guk prestatutako jolas honetan dadoak, potoak eta zuen esperientziak besterik ez dira behar.

1. Dadoa nahi duzuen bezala apaindu: emozio bat dadoaren alde bakoitzean dago idatzita, monsturoari aurpegia jartzea eta kolore ematea tokatzen zaizue.
2. Poto bakoitza emozio batekin lotu/margotu.
3. Dadoa eraiki eta gero jolasteko prest gaude: txandaka dadoa botako dugu eta tokatzen den emozioaren arabera gogoratzen dugun esperientzia bat kontatuko dugu eta dagokion potoan gordeko edo idatziko dugu. Adibidez: lasaitasuna, ipuin bat irakurtzen dudanean lasai egoten naiz.

Erantsita dituzue dadoa, potoa, eta baita apaingarri edo denbora pasa bezala erabiltzeko Koloretako Monstruaren hainbat irudi:

















